

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa**

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko udalerrietan euskara sustatzeko ekintzetarako diru-laguntzak norgehiagoka araubidean emateko oinarri arautzaile espezifikoen aldaketaren behin betiko onespena.

Osoko Bilkurak, bi mila eta hamazazpiko ekainaren hamabostean egindako ohiko bileran, erabaki zuen hasiera batean onestea Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko udalerrietan euskara sustatzeko ekintzetarako diru-laguntzak norgehiagoka araubidean emateko oinarri arautzaile arautzaile espezifikoen aldaketa.

Espedientea jendaurrean jarri da ekainaren 27ko 122/2017 Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako eta iragarki-taulan jarritako iragarkiaren bitartez eta hogeita hamar egun balioduneko epean; alabaina, ez da erreklamazio eta iradokizunik aurkeztu. Hor-taz, orain arte behin-behinekoa zen erabakia behin betikotzat hartu dela joko da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikulua-rekin bat etorritz. Horrenbestez, oinarrien aldaketaren testu osoa argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Bigarren oinarria, Seigarren oinarriaren (lehenengo paragrafoa), zazpigarren oinarria, bederatzigarren oinarriaren (lehen paragrafoa), hamargarren oinarriaren (seigarren paragrafoa), hamabigarren (lehen paragrafoa), eta hamabosgarren oinarria aldaketa argitaratzeko oinarrien testu finkatura gehituz egin da eragile juridikoek errazago erabil dezaten.

**DURANGOKO MERINALDEAREN AMANKOMUNAZGOKO UDALERRIETAN
EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZETARAKO DIRU-LAGUNTZAK NORGEHIAGOKA
ARAU BIDEAN EMATEKO OINARRI ARAUTZAILE ESPEZIFIKOAK**

1. Xedea

Oinarri hauen xedea honakoa da: norgehiagoka araubidean diru-laguntzak emateko oinarriak arautzea, entitateek edo irabazi-asmorik gabeko elkarteek euskara sustatzeko egitasmoak gara ditzaten Amankomunazgoko udalerrietan.

2. Diru-laguntzen baldintzak eta helburua

1. Ekintzek edo programek honako baldintza hauek bete behar badituzte:

a) Diruz lagundu daitezke Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren barruan, indarrean dagoen Amankomunazgoaren Plan Estrategikoan, jasotzen diren esparruekin zuzenean loturiko programak edo ekimenak. Hain zuzen, honako esparru hauekin loturikoak:

- Familia bidezko transmisioa.
- Arlo sozio-ekonomikoa.
- Aisia eta kirola.
- Kulturgintza.
- Hedabideak.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.
- Sentsibilizazioa eta motibazioa.

b) Programak edo ekintzak deialdiari dagokion urte naturalean gauzatu beharko dira.

c) Programek edo ekimenek eskualdeko ikuspegia izango dute nahitaez.

d) Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoaren Euskara Zerbitzua osatzen duten herriren batean garatu behar dira.



Hain justu, honako hauek dira eremu hori osatzen duten udalerriak: Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibar.

e) Proiektuaren edo jardueraren zabalkundea Amankomunazgoko herri guztietan egin beharko da.

2. Ezin izango dira diruz lagundu:

- Hezkuntza-programak edo izaera akademikoa dutenak, euskalduntze eta alfabetizazio-programak, eskola-ordutegi barruan egiten direnak edota guraso-elkarteek antolaturikoak.
- Haur eta gazteei zuzenduriko udalekuak.
- Kirol-taldeek antolaturikoak.
- Euskaraz garatu arren, euskararen erabilera sustatzea helburu nagusi ez duten programak.
- Zuzenean nahiz zeharka, sexuan oinarritutako bereizkeria eragiten duten jarduerak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean xedatutakoari jarraituz.

3. Entitate onuradunak

1. Deialdi honek eskainitako diru-laguntzen onura jaso ahal izango dute baldintza hauek betetzen dituzten entitateek edo irabazi-asmorik gabeko elkarteek:

- a) Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistro Ofizialean inskribatuta egotea.
- b) Egoitza soziala Abadiñon, Atxondon, Berrizen, Durangon, Elorrian, Iurretan, Izurtzan, Mañarian edo Zaldibarren izatea, eta diruz lagundutako ekintzak herri horietan garatzea edo, egoitza soziala aipatutako herriren batean izan ez arren, Amankomunazgoko Euskara Zerbitzua osatzen duten herrietangaratzea diruz lagundutako ekintzak.
- c) Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko eskakizunak betetzea.
- d) Administrazio-zehapenik edo zehapen penalik ez jaso izana sexua dela-eta inor baztertzeagatik edo, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako 4/2005 Legeak ezarritako diru-laguntzetan aurkezteko debekurik ez izatea.
- e) Diruz lagundutako ekintza gauzatzea eta seigarren puntuan zehazten diren dokumentuak aurkezteak.

2. Diru-laguntza honetatik kanpo geratuko dira administrazio publiko baten edo bazuen partaidetza duten erakundeak.

4. Aurrekontu-kreditua

Aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako zuzkidura ekonomikoa dagokion urteko deialdian zehaztuko da, eta adierazitako aurrekontu-xedapenaren kargura joango da.

5. Diruz laguntzeko moduko gastuak

1. Diruz laguntzeko moduko gastutzat hartzen dira diruz lagundutako jarduerarekin lotura duten gastuak; betiere, deialdiari dagokion urte naturalekoak badira. Diruz laguntzeko gastuen eskuratzeko-kostua ezin izango da inoiz merkatuko balioa baino handiagoa izan.

Justifikazio-aldia amaitu aurretik ordaindutako gastua joko da egindako gastutzat.

2. Hain zuzen ere, honako gastu hauek jaso dezakete diru-laguntza:

- Proiektua garatzeko behar den pertsonal laboralaren kontratazioa eta gizarte-segurantzia.
- Ekintza garatzeko beharrezkoa den lokalaren alokairu gastuak.
- Bulegoko material suntsikorra.
- Proiektua behar bezala garatzeko eskuratu beharreko material ez inbentariagarria.
- Garraio publikoa eta autobus pribatuen kontratazioa.



- Aseguru polizak.
- Publizitatea.
- Sari gastuak, gauzatan emandakoak (esku-dirutan emandakoak ez). Gehienez, bostehun euro sari guztiengatik.
- 3. Honakoak ez dira diruz lagunduko:
 - Elkartearentzat lan egiteagatik edo boluntario aritzeagatik pertsonen ordaindutako dohain eta kalte-ordainak.
 - Ibilgailu partikularrean egindako joan-etorrien gastuak.
 - Jan-edanen gastuak.
 - Esku-dirutan emandako primak edo sariak.
 - Entitatearen edo elkartearen egoitza nahiz lantokiaren errenta- edo garbiketa-gastuak.
 - Elektrizitatea, ura eta telefonoa ordaintzeko gastuak.
 - Ondasun inbentariagarrien gastuak.
 - Formazio eta trebatze teknikorako gastuak.
 - Diruz lagundutako ekintzak garatzean sortzen diren zeharkako kostuak.
- 4. Zergak diruz lagun daitezkeen gastuak dira, baldin eta onuradunak diruz ordaintzen baditu. Zeharkako zergak ez dira, inola ere, diruz lagun daitezkeen gastutzat joko, berreskuratzeko edo konpentsatzeko modukoak direnean, ezta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

Pertsona onuradunak bete beharreko gastua kontratatzeko arauak

Diruz lagun daitezkeen gastuaren zenbatekoa 2007ko urriaren 30eko Sektore Publiko Kontratuen 30/2007 Legean kontratu txikiarentzat finkatutako zenbatekoa baino handiagoa denean, onuradunak eskaintza bana eskatu beharko die, gutxienez, hiru hornitzailei, lanerako, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu baino lehen; salbu eta, diruz laguntzeko diren gastuen ezaugarri bereziengatik, nahikoa erakunde ez badago zerbitzu edo hornikuntza hori egiten duenik edo diru-laguntza eskatu baino lehenago egin bada gastua.

Aurkezten diren eskaintzak justifikazioan jaso behar dira, edo hala behar denean, diru-laguntzaren eskabidean. Haien arteko hautapenerako irizpideak eraginkortasuna eta ekonomia izango dira. Eskaintza ekonomiko hoberena hautatzen ez bada, arrazoiak azaldu behar dira memoria batean.

6. Eskabideak aurkezteko era eta epea

Diru-laguntzen eskabideak eredu ofizialean (I. Eranskina) aurkeztuko dira, Amankomunazgoaren Erregistro Nagusian (Astola etxea 26, Abadiño). Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikulua arautzen duen moduren batean ere aurkez daitezke eskabideak.

Eskabideak eta agiri osagarriak aurkezteko 15 egun balioduneko epea emango da, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiri eta informazioak.

Diru-laguntza eskabidea guztiz beteta eta erakundearen legezko ordezkariak sinatuta egon beharko da, eta, horrekin batera, agiri osagarri hauek aurkeztu beharko dira:

1. Erakunde edo elkartearen estatutuen kopia konpultsatua.
2. Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria: jatorrizkoa edo kopia konpultsatua.
3. Elkartearen Identifikazio Fiskaleko Kodearen kopia konpultsatua.
4. Erakundearen legezko ordezkariaren nortasun-agiri nazionalaren kopia konpultsatua.



5. Behar bezala eta dagokion erregistro ofizialean inskribatutako organo eta ordezkarien izendapenaren akordioaren ziurtagiria.

6. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela dioten ziurtagiriak.

7. Erakundearen legezko ordezkariaren erantzukizunpeko aitorpena, erakundea diru-laguntzak eskuratzetik ezgaituta ez dagoela esanez. (II. Eranskina).

8. Erantzukizunpeko aitorpena, diru-laguntzara aurkeztu den proiekturako beste erakunde publiko edo pribatu batzuei eskatutakoa edo haiengandik jasotakoa adieraziz. (III. Eranskina).

9. Jardueraren diru-sarrera eta gastuen aurrekontu xehatua. (IV. eranskina).

10. Diru-laguntza eskatzeko azaldu den jarduera zehatza edo jarduera-programa, kostu ekonomikoa, partaideen kopurua —hartzaileen adina, sexua eta zein herritakoa den—, eragin-eremua (udalerrak) eta jarduerak noiz egingo diren zehaztuta.

Nahitaez, zehatz agerrarazi beharko da programa edo jarduerak hasteko edo amaitzeko aurreikusi den eguna.

11. Alegatutako merezimenduei buruzko egiaztagiriak.

12. Elkartearen titulartasuneko kontua, banku-erakundeak behar bezala ziurtatuta. (V. Eranskina)

7. Eskabideak zuzentzea.

Eskabideak hutsuneak baditu edo oinarri arautzaile hauetan ageri diren baldintzak bete ez baditu, organo eskudunak interesatuari eskatuko dio akatsak zuzen ditzan, gehienez ere, 10 eguneko epean. Horrez gain, jakinarazi egingo zaio, zuzenketarik egin ezean, eskabideari uko egin diola ulertuko duela Administrazioak, horretarako ebazpena bidali ondoren; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluari eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23.5 artikuluari jarraiki.

8. Emateko prozedura

Diru-laguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da; eskabideak elkarrekin alderatuko dira, eta, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean adierazitako publizitate, lehia, gardentasun, objektibotasun, berdintasun, bereizkeria eza, eraginkortasun eta eragimen printzipioak bermatuko dira.

9. Eskaerak baloratzeko irizpideak

Hurrengo balorazio-irizpideak oinarri hartuta esleituiko dira diru-laguntzak:

- Ekintzaren kalitatea eta euskararen erabileran izan dezakeen eragina: gehienez ere, 40 puntu.
- Eragin-eremua (hartzaileen kopurua eta zer herritakoak diren): gehienez ere, 15 puntu.
- Egoitza soziala Abadiñon, Atxondon, Berrizen, Durangon, Elorrian, Iurretan, Izurtzan, Mañarian edo Zaldibarren izatea: gehienez ere, 10 puntu.
- Beren-beregi, haur eta gazteentzako egitasmoak izatea: gehienez ere, 10 puntu.
- Jardueraren iraupena eta jarraikortasuna: gehienez ere, 15 puntu.
- Gizarte-inklusioa sustatzea: gehienez ere, 5 puntu.
- Genero-ikuspegia txertatzea proiektuaren diseinuan, garapenean eta ebaluazioan: gehienez ere, 5 puntu.

Diru-laguntza jaso ahal izateko, erakunde eskatzaileak 50 puntu lortu behar ditu guztienez.

**10. Diru-laguntzen zenbatekoa**

Diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko, honako prozedura honi jarraituko zaio:

- Diru-laguntza eskabideak balorazio irizpide objektiboen arabera baloratuko dira, eta diru-laguntza eskaerei esleitutako puntu guztiak batuko dira.
- Kredituaren zenbatekoa eskaerei esleitutako puntu guztien artean banatuko da, puntu bakoitzaren balio ekonomikoa lortzeko.
- Diru-laguntzaren zenbatekoa puntu kopuru osoaren eta puntu bakoitzari esleitutako balio ekonomikoaren arteko biderketaren emaitza izango da.

Diru-laguntzaren zenbatekoa, baliabide kualitatibo eta kuantitatiboak aintzat hartuta, ekintza garatzeko diruz laguntzeko moduko aurrekontuaren %80 izango da, gehienez ere.

Edozein modutan ere, entitate edo elkarte bakoitzak jaso dezakeen gehieneko diru-kopurua dagokion urteko deialdian zehaztuko da.

Diru-laguntzaren zenbatekoak, berak bakarrik zein beste administrazio publiko zein erakunde publiko edo pribatu batzuen diru-laguntza edo laguntzekin batera, ezin izango du, inola ere, erakunde onuradunak egingo duen jardueraren kostu osoa gainditu. Diru-sarrera eta gastuen justifikazioa aztertutakoan gehiegizko finantziakzioa egon dela ikusi bada, gehiegizko diru-sarreraren zenbatekoa kenduko zaio diru-laguntzari.

11. Diru-laguntzaren emakida izapidetu, proposatu eta ebazteko eskumena duten organoak

Kudeaketa-zerbitzuari dagokio prozedura izapidetzea.

Diru-laguntzak emateko onespina eta ebazpena egiteko organo eskuduna presidentea edo hark eskuordetutako organoa izango da, Kultura, Euskara, Kirol eta Kontsumoko Informazio Batzordeak proposatuta.

12. Ebazpena jakinarazteko epea

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan ezarritakoa oinarri hartuta jakinaraziko zaie interesdunei emakidaren ebazpena. Jakinarazpen edo argitalpen hori gauzatzeko aipatutako Legearen 43. artikuluan agertzen diren xedapenak bete beharko dira.

Erakunde onuradunak zeintzuk diren eta eman diren laguntzak zenbatekoak diren adieraziko da ebazpenean, eta beren-beregi aipatuko da gainerako eskabideak ez direla onartu.

Sei hilabeteko epea egongo da, gehienez, prozeduraren ebazpena ebatzi eta jakinarazteko, deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Gehieneko epe hori amaitu eta ebazpena jakinarazi ez bada, interesdunek diru-laguntza emateko eskabidea administrazioaren isiltasunaren bitartez ezetsitzat jo ahal izango dute.

Interesdunek, administrazio bideari amaiera ematen dion ebazpenaren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote presidenteari, hilabeteko epean, ebazpena egiten den egunetik aurrera zenbatzen hasita; edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute administrazioarekiko auzien Bilboko epaitegian, bi hilabeteko epean. Dena dela, interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete.

13. Diru-laguntza ordaintzeko modua

Ordainketa aurreratuen bidez ordainduko da diru-laguntzaren %70, diru-laguntza justifikatu aurretik eta bermerik aurkeztu behar izan gabe, jarduerak gizarte-interesekoak direla kontuan hartuta. Hala ere, baldintzak bete ezean, erantzukizuna eskatu eta dirua itzultzeko agindu ahal izango da.

Gainerako %30a diru-laguntza justifikatu ondoren ordainduko da.



Diru-laguntza ez da ordainduko pertsona edo erakunde onuradunak beste diru-laguntzaren bat justifikatu gabe baldin badu eta justifikatzeko epe hori amaituta badago. Era berean, diru-laguntza ez da ordainduko pertsonak edo erakundeak aurreko diru-laguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaionean.

14. Inguruabarrak aldatzea

Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketa nabarmenik egonez gero, ebazpena ere aldatu egin ahal izango da.

15. Bestelako diru-laguntzekiko bateragarritasuna

Amankomunazgoak emandako diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk xede bererako emandako bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekin, baina inola ere ezin izango da gehiegizko finantziatorik egon.

16. Erakunde onuradunen betebeharrak

Oinarri hauen arabera diru-laguntza eskuratuko duten erakundeek diru-laguntzen arloan aplikatu beharreko araudian ezarritako betebeharrak orokorrak izango dituzte eta, batez ere, 38/2003 Legearen 14. artikuluan adierazitakoak. Besteak beste, honako betebeharrak hauek izango dituzte:

1. Diru-laguntza jaso duen jarduera egitea, proiektuan azaldutakoari jarraituz.
2. Jarduera egin dela egiaztatu eta laguntza emateko zehaztu diren betekizun eta baldintzak betetzea.
3. Finantza-kontrolerako eta egiaztapenerako jarduerak onartzea, eta eskatuko zaizkion datuak ematea.
4. Proiektua egitean sor litezkeen aldaketen berri ematea, behar bezala justifikatuta.
5. Beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek helburu bererako bestelako diru-laguntza edo laguntzarik eman dioten jakinaraztea.
6. Diru-laguntza eta bere aplikazioa behar bezala justifikatzea.
7. Eska litezkeen kontabilitate-agiriak izatea, egiaztapen- eta kontrol-jarduerak behar bezala egin ahal izateko, horrelakorik badago.
8. Jasotako fondoak zertarako baliatu diren justifikatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jarduerak egitea gerta litekeen bitartean.
9. Jasotako fondoak itzultzea, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritako kasuetan, bertan adierazitakoa betez.
10. Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoaren laguntza jaso dela erakustea ekintzak iragartzeko materialetan.
11. Diruz lagundutako jarduerari dagozkion idazki, iragarki, kartel eta gainerako komunikazioetan euskara edo bi hizkuntza ofizialak erabiltzea. Bi hizkuntzetan eginez gero, euskarari emango zaio lehentasuna.
12. Diruz lagundutako jarduerak izan ditzakeen arriskuen erantzule egitea eta, beharrezkoa bada, dagokion aseguruia kontratatzea.
13. Otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean xedatutakoari jarraituz, hizkera sexistatik ez erabiltzea eta gizonen eta emakumeen rolei dagokienez erabilera estereotipaturik ez egitea.

17. Diru-laguntza justifikatzeko epea eta modua

1. Justifikatzeko epea

Bi hilabeteko epea egongo da diru-laguntzak justifikatzeko, diruz lagundutako proiektu edo jarduera amaitu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.



2. *Justifikatzeko sistema*

Diruz lagundu den proiektu edo jarduera egin dela egiaztatzeko, legezko ordezkariak sinatutako egiaztapen-kontua aurkeztu beharko da. Honako agiri hauek izango ditu:

2.1. Diru-laguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla frogatzen duen jardueren memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adieraziz.

2.2. Egindako jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa. Memoria horretan ondoko hauek jasoko dira:

a) Jardueraren gastuen zerrenda sailkatua, hartzekodunaren eta dokumentuaren datuak, zenbatekoa, jaulkipen-data eta ordainketa-data zehaztuta.

b) Jatorrizko fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan baliozkoak diren edo administrazio-eraginkortasuna duten frogagiri baliokideak, zerrendan agertzen direnak, eta ordainketaren egiaztagiria.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo diru-laguntzen zerrenda zehatza; bertan diru-sarrera horien zenbatekoa, jatorria eta erabilera adierazi beharko dira.

d) Hala badagokio eta aplikatu ez den soberakinik izanez gero, itzulketaren egiaztagiria eta soberakinetatik eratorritako interesak.

e) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela dioten ziurtagiriak, eta, hala badagokio, azpikontratutako erakundearenak.

Txosten ekonomikoa, paperean eta euskarri informatikoan, eredu ofizialean aurkeztu beharko da.

Pertsona edo erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueraren aurrekontuaren %100 justifikatu beharko du, eta ez emandako kopurua bakarrik, Amankomunazgoak ordaintzekoak diren gastuak zehaztuz.

2.3. Diru-laguntzaren xedea den inbertsio, jarduera edo programaren finantzaketaren izaera publikoa egiaztatzeko dokumentazioa.

Egin diren publizitaterako materialen kopiak (kartelak, programak eta abar).

Fakturen betekizunak

Fakturatutako jarduerarekin lotutako enpresek egin beharko dituzte fakturak, diru-laguntzaren onuraduna den erakundearen izenean, eta diruz lagundutako jarduera edo proiektuarekin lotura izan beharko du.

Hau da, ez da onartuko diru-laguntza eskatu duen erakundeak edo partikularrak egindako faktura orokorrik.

Aurkeztutako fakturek deialdiari dagokion urte naturalaren data eduki beharko dute, eta legez eskatzen diren betekizunak bete beharko dituzte. Honakoak adierazi beharko dira bertan:

- Faktura-zenbakia.
- Data.
- Izen-abizenak, sozietatearen izena eta enpresaren IFZ.
- Enpresaren helbidea.
- Elkartearen izena eta IFZ.
- Egindakoaren deskribapena. Albaran edo oharrik aipatzen bada, fakturarekin batera aurkeztu beharko da.
- Zenbateko garbia eta aplikatutako BEZ adieraztea.
- Fakturaren zenbateko osoa.

Gastuak faktura elektronikoen bitartez ere egiaztatu ahal izango dira; betiere, zerga arloan onartuak izateko exijitutako eskakizunak betetzen badituzte.

*Langileen gastuak*

Langileen gastuak nominaren, enpresaren konturako Gizarte Segurantzaren TC1 eta TC2 dokumentuen eta PFEZren atxikipenaren agiriaren bidez zurituko dira (110 eta 190 ereduak).

Ordainketaren egiaztagiriak

1. Transferentzia, helbideratze, txeke edo taloi bidezko ordainketak: transferentzien edo kontuko karguen zerrenda; kontzeptua, hirugarren hartzailea eta kargatuta zenbatekoa adierazita.

Transferentzia edo helbideratze bidez egindako ordainketa justifikatzeko, fakturarekin batera, banku-ordainagiria aurkeztu beharko da (kartilla, banku-laburpena, zordun-keta edo bankuko mugimendua).

Ordainketaren bat taloi edo txeke bidez egin bada, haren fotokopia aurkeztu beharko da, baita hartzaileak jaso duela ziurtatzen duen banku-laburpena edo bankuko mugimendua ere.

Ordainketa beti egin beharko da erakundearen titulartasuna duen kontu baten kargura.

2. Eskura egindako ordainketak: ordainduta dagoela ziurtatzen duen zigilua; sal-tzailearen edo zerbitzu-emailaren sinadurarekin eta zigiluarekin.

Gastuaren egiaztagiriak baloratzea eta zigilua jartzea

Aurkeztutako fakturak edo jatorrizko agiriak zigilu-marka batez markatu beharko dira. Zigilu-marka horretan justifikatutakoa zein diru-laguntzari dagokion adierazi beharko da eta, horrekin batera, egiaztatutako kopurua diru-laguntza osoarena edo zati batena den aipatu beharko da.

18. Frogagiririk ez aurkeztea edo nahikoa ez justifikatzea

Diru-laguntza justifikatzeko beharra ez bada ezarri denaren arabera bete edo nahikoa justifikatu ez bada, diru-laguntza itzuli beharko da, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritako baldintzetan.

19. Oinarrien interpretazioa

Presidente edo berak eskuordetutako organoa izango da oinarri hauek aplikatzetik sor litezkeen arazoak interpretatu eta ebazteko organo eskuduna, eta horretarako beharrezko ebazpen osagarriak emango dituena.

20. Aplikatu beharreko arautegia

Oinarri hauetan aurreikusten ez diren puntuetan, honako hauek nahiz aplikagarria izan datekeen gainerako legedia ezarriko da: Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra; 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa; eta, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia onetsi duena.

Abadiñon, 2017ko abuztuaren 11n.—Jarduneko Presidente, Eva María Muñoz Ira-suegi